

BALIO PROPOSAMENA

Negua iristen denean, hotz asko pasa izan dugu oinetan. Egia da, bi galtzerdi jartzea aukera bat dela, baina askoz ere idea hobea bat da galtzerdi bero bat. Hau da, bateria baten bidez funtzionatzen dituen galtzerdiak. Argi dago, gure produktuaren helburua oinetan hotza ez pasatzea dela, horretarako hainbat faktore kontuan hartu behar dira.

Lehenik eta behin, gure produktua aukeratzearen arrazoiak, ez direla galtzerdi arruntak izango, aurretik esan bezala, bateria baten bitartez funtzionatuko duten galtzerdiak izango dira. Euskal Herrian oso ohikoa dugu, neguan bereziki, euria, hotza kazkabarra... Hotz horri aurre egiteko sortutako galtzerdiak dira hauek. Produktua, batez ere, kuantitatiboa izango da, izan ere, bateria batengatik soilik asko ordainarazten dizuen arren, gure produktua, hau da, galtzerdia, bateria eta kargadorea batuta 25€ prezioa izango du.

Bigarrenik, gure lehiakideengandik bereziki gaituna, batez ere, berritasuna izango da. Ez dira inoiz bateriadun galtzerdiak ikusi. Prezioa ere gehienok ordaintzeko moduko izango da, 25€, bertan galtzerdia, bateriaren prezioa eta bateria kargatzeko kargadorea egongo dira. Arriskua ere kontrolatua daukagu, izan ere, ezingo da kargatu erabiltzen ari zeran bitartean, bateria galtzerditik kanpo dagoenean soilik kargatu daiteke. Azkenik, eskuragarritasuna ere oso erraza izango da. Web orri bat sortuko dugu, eta bertatik eskuratu ahal izango dituzue. Bestela Euskal Herriko hainbat txokotan, batez ere hiriburuetan, denda batzuk jarriko ditugu.

Jarraitzeko, gure proiektuaren deskribapena egingo dizuet. Galtzerdi arruntak izango dira, eskiatzekoak edo finagoak direnak (Dechatlonetik erosiak). Bertan zulo txiki bat egongo da bateria jarri eta kentzeko. Bateria portatil horietakoa izango da, asko okupatzen ez duen bat, horrela erosotasuna ere handiagoa izango da. Azkenik, kargatzeko alde batean edukiko du entxufea, eta kargadorea kaxarekin etorriko da. Egia da, batzuek segurtasunarekin larrituta egongo direla, baina esan beharra dugu, arriskutik kanpo dagoela bateriaren eragina. Bateria kanpotik asko berotzen bada argi gorri bat piztuko da, argi gorri hori dagoenean ezin izango da bateria galtzerdian sartu, aldiz, argi berdea badago kargatua eta sartzeko moduan dagoela esan nahi du.